

# SUTURA

## SUEÑOS PODRIDOS



Sutura taldea noiz sortu zuten ere ez daki talde berak. Zergatik? Bi laguntaldek erabaki zuten lokal bat alokatzea musika jotzen ikasteko eta entsaiatzeko.

Jendearen sartu-irtena etengabea zen eta proiektua hutsaren peskizan zebilen. Hori zen Sutura taldearen jaio aurretiko historia 1995ean Trintxerpen (Gipuzkoa). Entsaio-gela hark entzun zituen Eskorbuto eta la Polla Records taldeen abestien lehen bertsioak. Bertsioei gero eta moldakuntza itxurosoa antzematen zitzairen eta Sutura Leve izenetik Sutura taldea izatera pasatu ziren 1998an. Hortik aurrera atarramentu gehiago lotuko zitzaion Sutura taldearen izenari. Punka ematen duen atarramentua, noski. Zein? Eurei galdetzea baino ez dago erantzun posible bat aurkitzeko. Sutura taldea hurbilduko da punk eragabetu eta kaotikora baina jarrera kutsuarekin. Jorge Reboredo soinu teknikariarekin kontaktuan jarri eta 1999an Sutura taldeak 12 abestiko lehen maketa argitaratu du, kantu bati "Rock and roll a la mierda" jarri zioten izenburua garbi gera zedin taldearen musika norabidea. 2001ean "Dios está en todas partes" autoekoiztutako lana plazaratu du. Dagoeneko, Sutura taldearen punka ezaguna da, eta ez bakarrik Trintxerpen. Autoekoizpenaren bidean berriro ere, bigarren diskoa "Beber y luchar" argitaratu du 2005ean. "Sutura, 10 años... haciendo el imbecil" fanzinea (berrogei orri taldearen historia zehazten) gehi lehen maketa cd euskarrian kaleratu du 2009an.

Sutura taldearen hirugarren diskoa "Sueños podridos" izenburukoa 2010eko martxoan grabatu du Donostiako Hell Division-Iron Batasuna estudioan, Mogambo aretoko Lolo eta Etxabe egon dira teknikari lanak egiten. Sutura taldeak ez du musika arloan laguntzarik eskatu, dena eurek grabatu dute.

Sutura taldeak ez du ezer inbentatu euren hirugarren punk danbategia den "Sueños podridos" diskoan. Punk jarrera, sentimendua, gogoa, amorrua, intransjizientzia (zergatik tranzijenteak izan boterea bera intransjiziente denean?), bizipena, estiloa eta doinuen berri emango digu Sutura taldeak, behin eta berriro, asperraldi, anomia eta ahanturaren aurka. Sutura taldeak ez gaitu, bakarrik, ziprinduko bere punk doinuekin, goitik behera bustitzeko asmoa eta jarrera dute. Punk estilo zahar-gaztera. Pogoaren muturreko garraxia. Kantuen sentsibiltatea era zakar zein zuzenean. Sutura taldeak realzaleentzat "txuri urdin" abestiaren punk bertsioa sartu du diskoan, festa alaitzeko beste modu bat. Diskoaren bukaeran bitxikeria bat aurki daiteke. Sutura taldea abiadura bizian dator kantu zorrotz eta zuzenak eskainiz. Hitz gutxiarekin gauza asko esaten. Sutura punk izan da eta horrela segituko dute.

### Sutura taldea punk da eta punkaren ezaugarri nagusietako bat jarrera sa. Sutura taldea punka eginez da punk?

Musikari bagagozkio, bai. Sutura taldea batu zenean orduak eta orduak eman zituen punk musika entzuten, punka goitik behera landuz eta punka bizitzen. Argitu beharra dago, ordea, taldekideok geure buruari ez diogula punkiak deitzen, nahiago dugu Antxon, Jon, Billa eta Anartz izatea. Ongi deritzogu punkiak garela badiote, baina etiketa hori ez diogu guk geure buruari jarriko. Esan dezakeguna da, hori bai, gure zuzenekoak nahikoa makarrak izaten direla.

### Sutura taldeak ohikoak ditu bridatu gabeko hitz gordinak eta funtsezko gaitara doaz beti: berez sistemaren pentsamendu menderatzailearen kontra joatea.

Bai, beti horrela egin dugu, badirudi gero gutxiago erabitzen dela jarrera hori, badirudi gero eta giza-arazo gutxiago dugula, badirudien arren dirudiena ez da egia, inolako garrantzirik gabeko gai hutsalez estali nahi digute errealitatea eta egunero botatzen dira pikutara pertsonen gutxiengo eskubideak, gizartea gero eta otzanduago dago, apalegia. Guk pentsatzen duguna baino ez dugu esaten, beti geratu da zerbait eta..

### Sutura taldeak hasierako maketa eta orain hirugarren diskoa. Punk historia eginez.

Pixkanaka elkartu ginen Trintxerpeko gela batean, 1997a izango zen, hasieran lagun talde modura baina laster norberak bere musika tresna aukeratu zuen eta, kostatu zitzaigun arren, hura guztia musika talde bihurtzea lortu genuen. 1999an argitaratu genuen lehen maketa eta Gipuzkoa inguruan hasi ginen zuzenekoak eskaintzen. 2001ean "Dios está en todas partes" diskoa kaleratu genuen, disko honek bikain zehazten du zer den Sutura eta jende askoren belarrietara iritsi zen gure ospea, disko honek ireki zizkigun bide horiek. 2005ean "Luchar y beber" disko landuago bat atera genuen, aurreko lanetan ez zeuden ukituekin baina Sutura taldearen betiko ezaugarriekin. 2010ean orain arteko gure diskorik sendo eta hoberenarekin bueltatu garela uste dugu.

**Billa:** bateria eta ahotsak

**Ivan:** baxua eta ahotsak

**Ion:** gitarra

**Antxon:** gitarra

**Anartz:** ahotsa

ritxi aizpuru  
(2010eko urriaren 5)

